



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2016-06-14

BILERA ZENBAKIA: 31

ORDUA ETA LEKUA: 19tan udalean

PARTEHARTZAILEAK: 5 neska eta mutil 1

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

HARRERA PLANA: Gizarte Zerbitzuetatik 40 eskutitz bidali dira adin guztietako herritarrei ongi etorria eman eta harrerako saio informatibora gonbidatuz (ekainaren 21a). Eskutitzak 2015 eta 2016ko maiatza bitartean Itsasondon erroldatu berri direnei bidali zaizkie. Hauetatik 22 jatorriz beste herrialde batekoak dira (errumania, honduras, portugal, argelia, marruecos, pakistan eta nigeria). Euska Herriko herrietatik 16 pertsona etorri dira Itsasondora. Adin tarteari dagokionez 10 haur ditugu etorri berriak eta helduenen artean 9 pertsona daude 48-60 urte ingurukoak; beste guztiak gazteagoak dira.

Harrerako saio informatibora zinegotzia eta alkatea, eukera taldetik kide bat etorriko da, herritar bat guraso moduan, ongizate lantaldeko kide bat, eskolako irakasle bat, Ainara udaleko teknikaria eta gizarte langilea joango dira, euren burua aurkeztu eta herritar etorri berriei informazioa ematera.

Guraso Elkarteari lankidetzaz eskatu zaio baina hauek ez dute ardura hori artu nahi izan. Ez da inor aurkeztu zubi lana egiteko, familia etorri berrien eta herriko ekintza ezberdinen artean.

Ongizate Lantaldean lehenengo harrera planeko saiakera hauek egiteak, errealitatearen inguruko informazioa emango digula ikusten dugu. Etorri berriek zertainoko interesa duten herriko baliabideak erabili eta bertako funtzionamentuan parte hartzeko eta baita Itsasondon urte gehiago daramatenak zenbateraino nahi duten guztien integrazioa eta parte hartzea ere.

SAREAN ETA DENBORAREN BANKUA: Aurreko lantaldean ezarritako helburuak lrailera pasako dira.

SIRIAR ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO AUKERAK: Ordizian uztailaren 2an bilketa egingo da. Hau erabiliz, Itsasondon ekainaren 24tik uztailaren 1era bilketa egitea adostu da eta ordizikoari atxiki. Bizi ekin taldearekin harremanetan jarriko gara. Bestalde honen berri emateko san juan bezperako eguna erabiliko da eta ordurako kartela prestatzeko geratu da lantaldea. Herri bizitzan ere honen berri



emango da.

2.0 ALDIZKARIA | ELKARRIZKETA: Uztailleko elkarriketan jatorriz beste herrialde batekoa den herritarra elkarriketatzen saiatuko gara Ongizate Lantaldetik.

AURREKONTUAK: Udalak Gizarte Zerbitzuetarako duen aurrekontua erreparasatu dugu.

AGENDA 21: Itsasondon egin zen ekintza planean programa edo helburu ezberdinak identifikatu ziren eta hauek gogora ekarriz, ekintza bakoitzarentzat ardurandun bat izendatu da.


1. Lanbidera bideratutako prestakuntzaren sustapena (Erkuden-Jabi).
2. Herriko lanpostuen sustapena (Haizea, Maider)
3. Oinarriko zerbitzu eta ekipamenduak antolatzea (Erkuden, Rut, Itsaso).
4. Adineko Itsasondoarren ongizatea hobetzea (Erkuden, Jabi).
5. Garapenerako lankidetzaren antolatzea (Haizea, Maider).
6. Berdintasuna garatzea (Leire, Marijo)
7. Ohitura osasuntsuak bultzatu eta osasun zerbitzua hobetu (Rut).
8. Etxebizitzak eskuratzeko erreztasunak ematea (Erkuden, Jabi)
9. Integrazioa landu (Itsaso).

DOKUMENTAL ZIKLOA : Ez da oso arrakastatsua izaten ari dokumental zikloa aurtengoan. Batetik pelikulak subtitulatuak ez izatea zaintzearen garrantzia aipatzen da (herritarrak kezatu dira). Urrian dokumental zikloaren formatoa berrikusiko dugu lantaldean.

Uztailaren 8an 22etan pelikula emanaldia kalean antolatuko da (goiko frontoia). Honekin batera, pelikularen aurretik etxetik afaria ekarri eta elkarrekin afaltzeko deialdia luzatuko zaie herritarrei. Udalak edaria jarriko du.

Iraileko ongizate lantaldea aurreratu dugu irailaren 6ra.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Siriar errefuxiatuei laguntzeko kartela	Ekainak 23	Erkuden, Maider, Rut
Ordiziko siriar errefuxiatuei laguntzeko taldearekin harremanetan jarri	Ekainak 23	Jabi
Herriko medikuarekin erraustegiaren inguruko hitzaldia lotu	Ekainak 28	Itsaso
Pelikula kalean ematen den egunerako materiala prestatu eta eskariak egin	Uztailak 8	Lantaldea



HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera, Uztalaren 12-an egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

1. Bokata jana.
2. Ttipi ttapa nola antolatu